


HIZKUNTZA INTERFERENTZIAK



Arg.: Geralt-Pixabay

1. Azalpena

Jarduera honen helburua da gazteek erabiltzen duten euskañolak edo frantseuskarak dituen ondorioez pentsatzea eta euskararen baliabideetan behar duten adierazkortasuna bilatzera bideratzea.

Kasu honetan, komeni da irakasleak zuzentasuna azpimarratzeko tentazioari eustea eta fokua eraginkortasunez eta gustura komunikatzeko gaitasunean jartzea

2. Jarraibideak

Euskañola, frantseuskara... Zer dira hiztunen hautua edo hiztunen gabezia? Entzun audioa eta apuntatu adostasunak eta desadostasunak.



[Gazteak eta euskañola \(22 min\)](#)

¹Taldeko guztiek berdin pentsatzen duzue? Egin ados zaudeten ideien zerrenda, baita zuen artean desadostasuna pizten duten ideiena ere.

Gaztelaniaren edo frantsesaren gehiegizko interferentziak gainditzeko bideak izan daitezke, bai euskarak dituen baliabideetan sakontzea, bai sormen gaitasuna astintzea, hau da, hizkuntzarekin jolastea. Zuen neuronak entrenatzeko, ikusi Andoni Egaña eta Miren Artetxeren saiakera:

¹ <https://media.eitb.eus/multimedia/audios/2013/01/24/1023827/FAK-AMURIZA.mp3>



[Esamoldeak euskaratzen \(8 min\)](#)² (bertsoa.eus)

3. Oharrak

3.3. Material osagarriak

Diego Pallés Lapuenteren artikulua Berrian (2019/08/29): “[Euskara \(gutxiegi\) inposatzen da](#)”³

Umore onez bukatzeko:



[Euskañolaren asmatzailea](#)⁴ (Zaldi Eroa)

² <https://bertsoa.eus/bertsoak/16117-andoni-egana-eta-miren-artetxe-esamoldeak-euskaratzen>

³ https://www.berria.eus/iritzia/euskara-gutxiegi-inposatzen-da_1256762_102.html

⁴ <https://drive.google.com/file/d/1e14cL-KqsMJwFvmhlm-wXC8-u2wUe8j/view>